AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

2685

EBAZPENA, 2014ko ekainaren 10ekoa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, zeinaren bidez aldatzen baitira Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Langileria Kudeatzeko zuzendariaren 2012ko abuztuaren 2ko Ebazpena, eta zuzendari beraren 2012ko abuztuaren 6ko Ebazpena, 16/2013 administrazioarekiko Amaia Atxikallende Arriaga andreak jarritako auzi-errekurtsoan Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salak 2014ko martxoaren 14an emandako Epaia betez.

Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salak, 2014ko martxoaren 14ko Epaiaren bidez, aintzat hartu du Amaia Atxikallende Arriaga andreak jarri duen 16/2013 administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren 2012ko abuztuaren 6ko Ebazpenaren kontra jarritako gorako errekurtsoaren administrazio-isiltasunaren ustezko ezestearen kontrakoa (ebazpen horren bidez, 2012ko otsailaren 10eko Aginduaren bidez deitutako hezkuntzako kidegoetara sartzeko hautaketa-prozeduran hautatutako izangaien behin betiko zerrendak eta espezialitate berriak hartzeko prozedura gainditutako izangaien behin betiko zerrenda argitara eman zituenaren kontra); geroxeago Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren 2013ko otsailaren 15eko Aginduaren kontra luzatzen da errekurtsoa, gorako errekurtsoa ezetzi zuena. Epaiak adierazten du errekurritutako ebazpena ez datorrela zuzenbidearekin erabat ados, eta ondorioz, baliogabetu du. Era berean, epaiak ziurtatzen du errekurtso-egileak eskubidea duela «II.1 Espediente akademikoa» atalean puntu bat baloratzeko. Halaber, oinarrietan xedatutakoarekin ados izan daitezkeen ondorioak direla-eta, plazaren esleipena badagokio, hura esleitu behar izan zitzaion datatik dagozkion ekonomi- eta lanbide-eraginekin.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2014ko ekainaren 3ko Aginduaren bidez, aipatutako epaia haren baldintzetan bete behar dela erabakitzen da.

Lehiaketa-aldiko «II.1 Espediente akademikoa» atala puntu batekin baloratu ondoren, Amaia Atxikallende Arriaga andreari 8,0000 guztizko puntuazioa dagokio aipatutako aldian. Puntuazio horri oposizio-aldian lortu duena, 6,6600 puntukoa, eta dagokion ponderazioa egin ondoren, aipatutako hautaketa-prozesuan Amaia Atxikallende Arriaga andrearen guztizko puntuazioa 7,1067koa da.

Horren ondorioz, irakasleen kidegoetara sartzeko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko otsailaren 10eko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozedurak gainditu zituzten izangaien zerrendan sartu behar da, Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako kidegoko Biologia eta Geologiako espezialitatean, txanda librea.

Horregatik, aipatutako 2014ko martxoaren 14ko Epaian xedatutakoa betez, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Aldatzea Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Langileria Kudeatzeko zuzendariaren 2012ko abuztuaren 2ko Ebazpena, zuzendari beraren 2012ko uztailaren 23ko

Ebazpena aldatu eta akatsak zuzendu zituena, 2012ko otsailaren 10eko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozeduraren lehiaketa-aldian izangaiek lortutako behin betiko puntuazioak, Langileriaren Kudeaketarako Zuzendaritzaren Unitateek baloratutako merituak barematu ostean, eta aldi horretako puntuazio totalak argitara eman zituena. Horiek horrela, Amaia Atxikallende Arriaga andreak puntu bat izango du lehiaketa-aldiko II.1 atalean, eta 8,0000 guztizko puntuazioa aipatutako aldian.

Bigarrena.– Aldatzea Langileria Kudeatzeko zuzendariaren 2012ko abuztuaren 6ko Ebazpena, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko otsailaren 10eko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozeduran hautatutako behin betiko zerrendak argitara eman zituena. Aldaketa horren ondorioz, Amaia Atxikallende Arriaga andrea Bigarren Hezkuntzako kidegoan hautatutako izangai gisa sartzen, Biologia eta Geologiako espezialitatean, txanda librean, 2. hizkuntza-eskakizunarekin eta 7,1067 punturekin (puntuazio hori lortu da oposizio- eta lehiaketa-aldian lortutako puntuazioei dagozkien ponderazioa egin ondoren).

Hirugarrena.– Hogei egun naturaleko epe bat irekitzea, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara eman eta hurrengo egunetik hasita, hautatutako izangaiak aurkez ditzan Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko otsailaren 10eko Aginduaren 11.1 oinarrian zerrendatutako agiriak, Hezkuntzako edozein lurralde-ordezkaritzatan.

Adierazitako dokumentazioa ezarritako epean, eta ezinbesteko kasuetan izan ezik, agiririk aurkezten ez badu edo agirien azterketatik aipatutako aginduaren bigarren oinarrian adierazitako baldintzetariko baten jabe ez dela ondorioztatzen bada, karrerako funtzionario izendatua izateko eskubide guztiak galduko ditu, hasierako eskabidean faltsukeria egin izanagatik merezi dezaken erantzukizunaren kaltetan izan gabe.

Laugarrena.– Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak praktiketako funtzionario izendatuko du Amaia Atxikallende Arriaga andrea.

Lehiatzaile horrek esleitutako destinoan egin beharko ditu praktikak eta, agertzen ez bada, aukeratze-prozedurari uko egiten diola interpretatuko da.

Behar bezala justifikatutako arrazoiak, Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzak kontuan hartu dituenak, direla-eta praktika-fasera ikasturte bat beranduago sartu behar duen horrek idatziz eskatu beharko du hogei egun naturaleko epean, ebazpen hau argitara eman eta hurrengo egunetik hasita. Eskaerarekin batera, ziurtagiriak ere aurkeztu beharko ditu.

Bosgarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salak du epaia gauzatzeko tramiteetan gerta daitekeen edozein gai ebazteko eskuduntza, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 103.1 eta 109. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko ekainaren 10a.

Langileriaren Kudeaketako zuzendaria,
KONRADO MUGERTZA URKIDI.